



## APARKAMENDUEN INGURUKO PARTE HARTZEZKO PROZESUAREN AMAIERAKO TXOSTENA

Herriak Lasarte Oriari ikusten dizkion arazo nagusietako bat da aparkaleku faltarena. Pertzepzio hori egiazkoa ote zen egiaztatzeko, Lasarte-Oriako Udalak aparkalekuen inguruko ikerketa bat egiteko enkargua egin zion kanpoko enpresa bati. Haren emaitzaren arabera, ezin daiteke ondorioztatu pertzepzio horrek errealitatearekin bat egiten duenik.

Kanpoko ikerketa horren ondorioak gorabehera, Lasarte-Oriako Udalak bere gain hartu zuen parte-hartzezko prozesu bat egiteko ardura, eta prozesu horren helburua izan zen herritarren proposamenak jasotzea, aparkaleku faltaren arazoa arintzeko edo konpontzeko. Helburu horrekin, parte hartzeko orri bana bidali zitzaizen udalerriko etxebizitza guztiei, eta, gainera, orri hori udalaren webgunean argitaratu zen, edozein herritarrek sarbidea izan zezan eta egoki iritzitako proposamenak egin zitzaizen, Udalak horretarako irekitako epean.

Behin epea amaitutakoan, Lasarte-Oriako Udalak hainbat ideia jaso zituen, 58 proposamenetan multzokatu zitezkeenak, eta horiek udaleko teknikariei bidali zizkien, horiek azter eta balora zitzaten. Lan horretarako, bilera bat egin zuten Zerbitzu Publikoetako arkitekto teknikoak, Udaltzaingoko buruak eta Bulego Teknikoko arkitektoak. Horiek dokumentu bat egin zuten, proposatutako jarduketa bakoitzaren inguruko informazioa ematen zuena (I. ERANSKINA).

Txosten hori ikusi ondoren, erabaki zen bilera politiko bat egitea alkateak, Hirigintzako zinegotziak eta Zerbitzu Publikoetako zinegotziak, jasotako herritarren proposamenen ondorio hauekin:

### 1. Udalaren jabetzako garajeen alokairuaren prezioa jaistea

Egun 5 garaje-plaza libre daude Okendoko aparkalekuan eta 6 garaje libre daude Donostia etorbideko aparkalekuan. Horrenbestez, ez dugu uste plaza bakoitzak duen alokairua, hileko 60 eurokoa, arazo bat denik horiek okupatzeko. Izan ere, herritar askok eskatu dituzte, eta egiaztatu dugu poliki-poliki guztiak alokatuko direla.

Horrez gain, uste dugu plaza horien prezioa murriztea konparaziozko bidegabekeria izango litzatekeela dagoeneko alokatuta dauden udal-jabetzako plazen maizterrentzat.

### 2. Ibiak plaza bakarreko garajeetan

Egun, Lasarte-Oriako Arau Subsidiarioek ez dute aukerarik ematen 5 garaje plaza baino gutxiago dituzten lokalek ibia eskatzeko. Nolanahi ere, gai hori herriko Plan Orokor berria idazten ari direnei helaraziko zaie.

Uste dugu plaza bakarreko garajeentzako ibientzako baimenak ematen ez dela konpontzen aparkaleku-arazorik. Izan ere, normalean lurgaineko plaza bat kenduko litzateke lokal itxi batera ibilgailu bakarra sartzeko aukera emateko.

### 3. Beste arrapala bat egitea Okendoko garajeetan, errazago sartzeko eta irteteko

Une honetan ia ezinezkoa da, egiturari dagokionez, jarduketa hori planteatzea. Gainera, ez dagokio soilik Lasarte-Oriako Udalari, sarrera hori Okendoko garaje publikoetarakoa izateaz gain, Hipodromo etorbideko urbanizazio pribatu osoarentzat ere badelako.

Halaber, uste dugu jarduketa horrek ez liokeela irtenbiderik emango aparkalekuen arazoari.

### 4. Arazoak usoekin

Ez da aparkaleku-arazo bat.

### 5. Zakur-gorotzak eta gaizki jarritako zaborrak

Ez da aparkaleku-arazo bat.

### 6. Bidegorri-sarea osatzea, bizikletak aparkatzeko leku gehiago jartzea eta herria 30 kilometro orduko bide bihurtzea, bizikletei lehentasuna emanda



Udala ibai ertzeko bidegorriaren loturari irtenbidea emateko proposamena planteatzen ari da Erribera kaleko jabeen erkidegoekin, baita Gipuzkoako Foru Aldundirekin ere, Txikierdi Usurbilekin eta Donostiarekin lotzeko.

7. Hipodromo etorbidean kokatutako edukiontziek zaildu egiten dute bertara Uistinetik sartzen diren ibilgailuen ikusgaitasuna.

Edukiontziaiek lekuz aldatuko dira. Gertu dauden bi babesguneak batu egingo dira, eta mota guztietako edukiontziaiek dituen erdiko babesgune bat sortuko da. Espazio librea motoentzako aparkaleku moduan jarriko da, eta horrek ikusgaitasuna erraztuko du.

8. Edukiontziaiek espaloian jartzea, aparkaleku-plazak okupatu gabe

Udalerriko babesgune guztiak berrikusiko dira, hori gerta ez dadin

#### Egoiliarrentzako gunea

Zehatzago aztertuko da egoiliarrentzako gunek mugatzeko aukera, baita TAO edo aparkaleku mugatuko gunek jartzekoa ere.

9. Lasarte-Oriakoak ez diren jabeak dituzten autoek zerga bereziak ordaintzea

Jarduketa hori ez da bideragarria. Ezin zaie zerga bat ezarri Lasarte-Orian matrikulatuta ez dauden ibilgailu guztiei.

10. TAO

Zehatzago aztertuko da egoiliarrentzako gunek mugatzeko aukera, baita TAO edo aparkaleku mugatuko gunek jartzekoa ere.

#### Isun gehiago

Udaltzaingoak isun gehiago jartzeak ez du konponduko aparkaleku faltaren arazoa.

#### Garajeak gehiago erabiltzea

Ez dugu modurik ikusten ibilgailu eta garajeen jabeek horiek gehiago erabiltzeko, ez bada udalerrian kontzientziazio-kanpaina bat egitea.

11. Zamalanetako ibiak eta desgaituentzako plazak zaintzea

Hori Udaltzaingoak egin behar du.

12. Egoiliarrentzako plazak

Zehatzago aztertuko da egoiliarrentzako gunek mugatzeko aukera, baita TAO edo aparkaleku mugatuko gunek jartzekoa ere.

#### Aparkalekua periferian

Udalak ez du udalerraren periferian disuasio-aparkaleku bat sortzeko udal-partzelarik. Ikertu egingo dugu jabe pribatuekin akordioak egitea; esate baterako, Michelin 2rekin edo Kotxerasko BEPBrekin.

#### Osasun-zentroko parkinga, egoiliar interesatuen artean zozketan

Udalak garaje horri ate bat jar diezaioke eta anbulatorioko sotoan kokatutako 40 plaza alokatzeko jar ditzake, gainerako aparkaleku-plaza municipalen baldintza beretan.

#### BMko parkinga, zozketan

BMko aparkalekua jabetza pribatukoa da, eta Udalak ezin du haren inguruko zozketarik egin. Jabeari proposatuko zaio azter dezala garaje errotatorioko plaza batzuk alokairuan jartzeko aukera.

13. Autoa erabiltzeko beharra murriztea, Zabaletarako igogailua jarritz



Zabaleta, Zabaletaberri eta Goiegi auzoek herriaren erdialdearekin duten lotura erraztu egin da herriko autobus-zerbitzua ematen denetik. Horrez gain, irisgarritasun-planak hainbat jarduketa ezartzen ditu lotura hori are gehiago hobetzeko, eta horiek Udalak bere gain hartu beharko ditu.

Abandonatutako eremuetan aparkalekuak egokitzea: Michelin, DIA

Udalak jabe pribatuekin negoziatuko du beren partzelak disuasio-aparkalekuak sortzeko laga ditzaten; esate baterako, Michelin 2n edo Kotxerasko BEPBn.

14. BMko aparkalekua erabilgarri egotea Sasoeta eskolaren sarrera eta irteerako orduetan, edo, bestela, aparkatzeko beste lekuren bat edukitzea.

BMko aparkalekua jabetza pribatukoa da, eta Hezkuntzak edo eskolako guraso-elkarteak lortu beharko du akordio bat jabearekin.

15. Arranbide kaleko 7. eta 13. atarien arteko aparkaleku-lerroa kentzea

Ez zaigu egokia iruditzen aparkaleku-lerro bat kentzea bidea uzteko 5 plaza baino gutxiago dituztenez ibia izateko eskubidea ez duten garaje batzuetara sartzeko.

16. Arranbide kaleko 7. eta 13. atarien arteko aparkaleku-lerroa kentzea

Ez zaigu egokia iruditzen aparkaleku-lerro bat kentzea bidea uzteko 5 plaza baino gutxiago dituztenez ibia izateko eskubidea ez duten garaje batzuetara sartzeko.

17. San Frantzisko 2n turismoak ez beste ibilgailuek aparkatzea debekatzea

San Frantzisko 2n kokatutako aparkaleku-plazak handiak dira, eta ez dugu arrazoi egokirik ikusten debekua ezartzeko.

Kotxerasen autobideko zubiaren azpia gaitzea

Espazio hori Gipuzkoako Foru Aldundiaren jabetzakoa da, eta Udalak beste proposamen bat egin dio gune horretarako, hark baimena eman dezan.

18. Arranbide kaleko 7. eta 13. atarien arteko aparkaleku-lerroa kentzea

Ez zaigu egokia iruditzen aparkaleku-lerro bat kentzea bidea uzteko 5 plaza baino gutxiago dituztenez ibia izateko eskubidea ez duten garaje batzuetara sartzeko.

19. Bidegorri-sarea osatzea, bizikletak aparkatzeko leku gehiago jartzea eta herria 30 kilometro orduko bide bihurtzea, bizikletei lehentasuna emanda

Udala ibai ertzeko bidegorriaren lotura soluzionatzeko proposamena planteatzen ari da Erribera kaleko jabe-komunitateekin, baita Gipuzkoako Foru Aldundirekin ere, Txikierdi Usurbilekin eta Donostiarekin lotzeko.

20. BMko aparkalekuaren jabearekin hileko alokairu sinbolikoa negoziatzea

BMko aparkalekua jabetza pribatukoa da, eta Udalak jabeari proposatuko dio garaje errotatorioko plazak alokairuan jartzeko aukera aztertzeko.

Kiroldegian TAO gunea jartzea

Zehatzago aztertuko da egoiliarrentzako guneak mugatzeko aukera, baita TAO edo aparkaleku mugatuko guneak jartzekoa ere.

21. Zumaburu: txorakoak kentzea

Zumaburu kalean txorakoak kentzeak ez luke aparkaleku gehiagorik sortuko. Izan ere, farolek ere aparkatzeko espazioa hartuko lukete, bloke horiek estalki bat baitute, espaloian jartzeko aukerarik ematen ez duena.

22. Garajea dutenak hura erabiltzera behartzea



Ez dugu modurik ikusten ibilgailu eta garajeen jabeen horiek gehiago erabilarazteko, ez bada udalerrian kontzientziazio-kanpaina bat egitea.

Doako aparkalekuak

Udalaren helburua da lurgainean ahal adina aparkaleku-plaza sortzea. Arazoa lekua bilatzea da.

Arroparentzako edukiontzi bat jartzea Urdaburu plazako 1. zenbakian

Ez da aparkaleku-arazo bat.

23. Goikale 21en aparkaleku-marrak margotzea

Udalak dagoeneko egin du jarduketa hori.

24. Zumaburu: lerroan aparkatzeko gunean espaloia kentzea, baterian aparkatzeko

Jarduketa hori ez da bideragarria. Ezin da espaloi horren zabalera murriztu, irisgarritasunaren legea urratuko lukeelako.

Kale Nagusia eta Zumaburun zamalanetarako gunea kentzea (asko dago)

Zamalanetarako gunek ordutegi jakin bat du; gainerakoan, aparkaleku moduan erabil daiteke. Horrenbestez, proposamena ez dugu onargarritzat jotzen.

Zumaburuko atzealdean berriz ere aparkatzen uztea

Zumaburu kalearen atzealdean marra horia margotu zen, aparkatuta zeuden kotxeek uzten zuten zabalerak zaildu egiten baitzuen handik igarotzea. Gainera, oraindik ere lehen oztopatzen ziren hainbat jarduera daude han oraindik.

25. Abandonatutako ibilgailuak kentzea

Udaltzaingoak orain ere badu protokolo bat abandonatuta dauden ibilgailuak erretiratzeko.

Plaza ugari enpresetako ibilgailuek eta inguruko herrietako jendeak okupatzen ditu

Zehatzago aztertuko da egoiliarrentzako gunek mugatzeko aukera, baita TAO edo aparkaleku mugatuko gunek jartzekoa ere.

26. TAO

Zehatzago aztertuko da egoiliarrentzako gunek mugatzeko aukera, baita TAO edo aparkaleku mugatuko gunek jartzekoa ere.

27. Desgaituentzako plaza gehiago jartzea eta horiek gehiago kontrolatzea

Udalak nahitaez plaza bat gorde behar du desgaitasun-txartela dutenentzat ohiko 40 plaza bakoitzeko. Udaltzaingoak kontrolatzen du horien erabilera

28. Abandonatutako ibilgailuak kentzea

Udaltzaingoak orain ere badu protokolo bat abandonatuta dauden ibilgailuak erretiratzeko.

29. Hipodromo etorbidean kokatutako edukiontzien zaildu egiten dute bertara Uistinetik sartzen diren ibilgailuen ikusgaitasuna.

Edukiontziak lekuz aldatuko dira. Gertu dauden bi babesguneak batu egingo dira, eta mota guztietako edukiontziak dituen erdiko babesgune bat sortuko da. Espazio librea motoentzako aparkaleku moduan jarriko da, eta horrek ikusgaitasuna erraztuko du.

30. Aparkamendua Goikalen: hura zabaltzea lur azpiko aparkaleku batez



Aparkaleku horrek udal-jabetzako egoitza-partzela bat hartzen du, baita jabe pribatu batekin proindibisoan duen partzela bat ere. Udalak ez du planteatu inbertsio handirik egitea zentzu horretan, partzela hori epe laburrean salgai jarriko baita.

Anbulatorioko aparkalekua: plaza oso estuak

Udaleko bulego teknikoak plazak ezberdin banatzeko proposamena egin du, gainerako udal-plazen moduan aparkaleku hori ere alokairuan jarriko balitz aplikatzeko.

Etorkizunerako: lur azpiko aparkalekua futbol-zelaiaren azpian

Atsobakarreko futbol-zelai berriaren proiektuan ez dago aparkalekuentzako lur azpiko solairurik sartuta. Izan ere, uste dugu gune horretan ez dagoela kontzesio administratiboan dauden garajeen eskaririk. Egun, Michelingo garaje ugari hutsik dago, eta ikusi dugu partikularrek ez dutela tipologia horretako garajeen eskari handirik egiten.

Horrez gain, Green kaleko proiektua Asteasuain kalearekin lotuko da, eta kale hori norabide bakarrekoa izango da; beraz, errei batean bateriako aparkaleku-plaza ugari jarri ahalko dira.

Lurgaineko eta lur azpiko aparkalekuak futbol-zelaiaren eta Usurbilen arteko partzeletan.

Partzela hori jabetza pribatukoa da, eta titularrek planteatu dute gunearen hirugarren mailako garapen bat. Horrek aparkaleku ugari sortuko ditu, eta zerbitzua emango diote guneari oro har, bertan garatuko diren jardueri emateaz gain.

### 31. Green plazaren atzea eta Asteasuain kalea lotzea

Atsobakarreko futbol-zelai berriaren proiektuak planteatzen duenez, Green kaleko proiektua Asteasuain kalearekin lotuko da, eta kale hori norabide bakarrekoa izango da; beraz, errei batean bateriako aparkaleku-plaza ugari jarri ahalko dira.

### 32. Iñigo de Loiola eta Urbil lotzeko bidean aparkalekuak baterian

Proposamena aztertu da, eta ez da bideragarria teknikoki, bidea ez delako bateriako aparkaleku bat eta zirkulazio bat izateko bezain zabala.

Hipodromo etorbidean (etxe berriak) aparkalekuak baterian

Urbanizazio berri bat da, eta ez da hori aldatzerik planteatzen. Etorkizunerako aukera bat izan daiteke.

INEMeko aparkalekua gaitzea

Aparkaleku hori Eraikuntzako Institutuarena da, eta gaur egun ikastetxe horretako irakasleek eta ikasleek erabiltzen dute.

Antxota kalea: aparkalekuak baterian

Bideragarritzat jotzen da Antxota kalean, Aralar plazaren parean, 21 aparkaleku (6 autoentzat eta 15 motoentzat) sortzea baterian.

Antxota kalearen eta Donostia etorbidearen arteko bidegurutzean aparkatzea debekatzeko marra horiak kentzea

Bide hori Gipuzkoako Foru Aldundiarena da, eta uste dugu ez dela egokia gune horretan aparkatzea, segurtasunagatik.

### 33. Aparkatzeko plazak bilatzea kiroldegiko, ambulatorioko, kulturetxeko gunean eta abar, gune eskusibo gehiegi daude

Ez da proposamen zehatz bat. Udalak ere badu helburu hori.

Euskotreneko aldiriko trena egoiliarrentzat



Zehatzago aztertuko da egoiliarrentzako guneak mugatzeko aukera, baita TAO edo aparkaleku mugatuko guneak jartzekoa ere.

34. Gaueko doako aparkalekuak herriko biztanleentzat

Udalak sortutako lurgaineko plaza guztiak doakoak dira

Kiroldegiaren aurreko aparkalekua txukuntzea

Udal-jabetzako partzela osorik asfaltatuta dago. Udalak partzela hori proindibisoan du sustatzaile pribatu batekin, eta asfaltatu gabe dago sustatzaile horrek ez duelako baimenik ematen.

Denbora gutxirako aparkalekuak gaitzea

Zehatzago aztertuko da egoiliarrentzako guneak mugatzeko aukera, baita TAO edo aparkaleku mugatuko guneak jartzekoa ere.

35. Zabaletaberrin norabide bakarrek kalea jartzea, eta aparkalekuak baterian

Urbanizazio berri bat da, eta ez da hori aldatzerik planteatzen. Etorkizunerako aukera bat izan daiteke, baina gaur egun ez dago nahikoa aparkaleku-eskari jarduketa hori justifikatzeko.

36. Aparkalekua kiroldegi parean: plazak margotzea erdian

Jarduketa bideragarria da, eta udaleko brigadak egingo du.

37. Oztaran: aparkaleku gehiago lorategien ordez

Aukeraren bat aztertuko da.

San Frantzisko gunean aparkaleku gehiago, pentsa dezatela arkitektoek

Zatarain urbanizazio berriarekin aparkaleku gehiago sortuko dira San Frantziskotik igotzeko bidean.

San Frantziskoko 20, 22 eta 24. atariei N1 errepidera pasatzeko bide-zorra itzultzea

Gune horretako biztanleek beren etxebizitzetara Loidibarrendik sartu beharko dute.

38. Oinezkoen pasabideetan, espaloietan eta abarretan ez aparkatzea, isun gehiago

Udaltzaingoaren ardura da ordenantzak betearaztea.

39. San Frantzisko 6 eta 8: gune berrian aparkaleku-gune bat jartzea, 25 auto, gutxienez.

Zatarain urbanizazio berriarekin aparkaleku gehiago sortuko dira San Frantziskotik igotzeko bidean.

San Frantziskoko 20, 22 eta 24. atariei N1 errepidera pasatzeko bide-zorra itzultzea

Gune horretako biztanleek beren etxebizitzetara Loidibarrendik sartu beharko dute.

40. Andatza plaza gauerako aparkaleku moduan erabiltzea

Ez dugu uste proposamen hori bateragarria denik plaza herritarrek erabiltzearekin, hainbat arazo ekar ditzakeelako: baldosak haustea, olio-orbanak, egunean zehar kendu ez dituzten ibilgailuak eta abar.

41. Donostiako Udalarari eskatzea Hipodromoko aparkalekua txukuntzeko

Udalak eskaera egingo dio Donostiako Udalarari.

42. Garajeak gehiago erabiltzea

Ez dugu modurik ikusten ibilgailu eta garajeen jabeen horiek gehiago erabiltzeko, ez bada udalerrian kontzientziazio-kanpaina bat egitea.



43. Iñigo de Loiolan eta Uistinen garaje-plazak handitzea

Kalearen bi aldeetan bateriako aparkalekuak daude, eta, beraz, ezinezkoa da aparkaleku-plaza gehiago jartzea.

44. Zumaburu: txorakoak kentzea

Zumaburu kalean txorakoak kentzeak ez luke aparkaleku gehiagorik sortuko. Izan ere, farolek ere aparkatzeko espazioa hartuko lukete, bloke horiek estalki bat baitute, espaloian jartzeko aukerarik ematen ez duena.

45. Zumaburu 18ren eta Kale Nagusia 50 atzealdearen arteko lorategia kentzea aparkalekuak lortzeko

Egiaztatu egingo da ea lorategi horiek udal jabetzakoak ala Libertoren garajeetako komunitatearen jabetza pribatua diren.

46. Aparkalekuekin zerikusirik ez duten hainbat erreklamazio

Ez da aparkaleku-arazo bat.

47. Bizikletak espaloitik ibil ez daitezela

Ez da aparkaleku-arazo bat.

48. Kale Nagusia 52 eta 54 botatzea eta aparkaleku moduan egokitzea

Pabiloi horiek jabetza pribatukoak dira. Kotxerasko BEPBko Kontzertazio-Batzarrari eskatuko zaio.

49. Michelinekin negoziatzea haren aparkalekuaren erabilera

Udalak Michelini eskaera bidaliko dio.

50. Aparkaleku municipal bat eraikitzea, tarifa ordaingarriak izango dituen

Okendoko alokairuko aparkalekua egin da, baita Michelingo kontzesio administratiboko aparkalekua ere.

51. Lur azpiko plaza ordaingarriak

Okendoko alokairuko aparkalekua egin da, baita Michelingo kontzesio administratiboko aparkalekua ere.

Gune urdina

Zehatzago aztertuko da egoiliarrentzako guneak mugatzeko aukera, baita TAO edo aparkaleku mugatuko guneak jartzekoa ere.

Abandonatutako ibilgailuak erretiratzea

Udaltzaingoak orain ere badu protokolo bat abandonatuta dauden ibilgailuak erretiratzeko.

Zumabururen eta Kotxerasen arteko industrialde abandonatua urbanizatzea

Kotxerasko BEPBko Kontzertazio-Batzarreko kideekin bilerak egin dira abian jartzeko.

52. Ganbo kalea egokitzea egunean zehar aparkatzeko

Proposamena bideragarritzat jo da, eta seinaletika erretiratu egingo da.

53. Zumaburu: txorakoak kentzea

Zumaburu kalean txorakoak kentzeak ez luke aparkaleku gehiagorik sortuko. Izan ere, farolek ere aparkatzeko espazioa hartuko lukete, bloke horiek estalki bat baitute, espaloian jartzeko aukerarik ematen ez duena.



54. Ziklomotorrentzako aparkaleku-plazak Urko plazan

Asfaltatzeko kanpaina berriarekin, motoek aparkatzeko plazak jarriko dira gunere horretan.

55. Egoiliarrentzako plazak erreserbatzea

Zehatzago aztertuko da egoiliarrentzako gunek mugatzeko aukera, baita TAO edo aparkaleku mugatuko gunek jartzekoa ere.

Denbora gutxirako doako aparkalekua

Zehatzago aztertuko da egoiliarrentzako gunek mugatzeko aukera, baita TAO edo aparkaleku mugatuko gunek jartzekoa ere.

56. Aparkaleku gehiago San Frantziskon

Zatarain urbanizazio berriarekin aparkaleku gehiago sortuko dira San Frantziskotik igotzeko bidean.

Desgaituentzat margotutako aparkalekua kale-hasierara eramatea

Ez da beharrik ikusi.

57. Isla plazan motoentzako aparkalekua

Motoentzako bi aparkaleku daude, Zumaburu eta Ola kaleetan.

58. Aparkaleku-plaza berriak sortzea Buruntza kalearen eta Sasoeta pasealekuaren bidegurutzean

Proposamen hori bideragarritzat jo da, eta 12 aparkaleku-plaza inguru sor daitezke.